



IJAPA-k (International Jai Alai Players Association-ek) bat egiten du zesta-puntaren egoera dela eta, azken egunetan ehundaka zale, pilotari eta pilotari ohik azaldu duten kezkarekin. IJAPA osatzen dugun pilotariok, ehun inguruk, zesta-punta edo Jai Alai-aren egoera konpontzeko neurri azkarrak eskatzen ditugu, eta alde guztiei elkarriketarako deia egiten diegu.

IJAPA prest dago Jai Alai-arentzat etorkizun hobea aurkitze aldera zabaldu litekeen edozein elkarriketetan parte hartzeko.

1.- Pilotari profesionalok kalitatezko txapelketak nahi ditugu jokatu. Euskadiko enpresei akordio bat eskatzen diegu, txapelketetan enpresa desberdinetako pilotariok elkarren kontra jokatu ahal izan dezagun. Modu horretan, zaleei ere ikuskizun duin eta kalitatezkoa eskaini ahal izango diegu.

2.- Txapelketak antolatzen dituzten erakunde publiko zein pribatuek, txapelketa horietan parte hartu nahi duen pilotari ororen partehartzea ahalbidatu behar lukete, lehiaketaren eta produktuaren onerako.

3.- Munduko Pilota Batzarrak eta Euskal Pilotaren Nazioarteko Federakuntzak (FIPV) zesta-puntari batere laguntzen ez dion bizefalia bat osatzen dute. Bi erakunde hauek euren ustez egokiak diren txapelketak antolatu behar dituzte, baina era bateratu eta eraginkorren. Erakunde hauek jasotzen dituzten diru-laguntza publikoak era koherenteagoan banatu beharko liriateke, kirolari berari harreta berezia eskeiniz, etorkizunerako funtsezkoak diren zesta-eskoletatik hasi eta maila profesionalera arte. IJAPA-k, Estatu Batuetatik, “Zesta-eskolei Laguntzeko Programa” sortuko du aurki eta horren bitartez pilotari profesionalen materiala hainbat zesta-eskoletara bidaliko dugu.

4.- Zesta-punta profesionalak egitura sendo eta eraginkor bat behar du, urteko egutegi internazionala martxan jarriko duena, ahalik eta pilotari kopuru handienari zabaldua. Horretarako, Jai Alai profesionala kudeatzen duen erakunde desberdinen arteko akordio bat beharrezkoa da. Kirol hau benetan maite badute, mahai baten inguruan eseri behar dira eta akordioetara iritsi. Hau posible ez bada, Eusko Jaurlaritzak esku hartu behar du euskal gizarteari eta ekonomiari hainbeste eman dion kirolari bultzada sendoa emateko.

5.- Eusko Jaurlaritzak, eta zehazki, Kirol Departamenduak, kirol honen konponbidean partehartze zuzena izan behar dute, izan bitartekari moduan edo sustatzaile nagusi moduan. Nazioartean ezagunena den euskal kirol honek hori eta gehiago merezi du. Ezin da izan esku-pilotak erakundeen diru laguntza gehienak jasotzea, eta zesta-punta ogi-apurrekin geratzea. Aitzakia ofiziala, zesta-puntan erakundeen arteko kohesio falta dagoela da. Honek arrazoi izateari utzi behar dio. Kirol honek aukera ikaragarriak ditu, baina bere kudeaketak perspektika

askoz internazionalago bat eskatzen du, eta ez orain arteko ikuspegi hain lokala. Ipar eta Hego Euskal Herria, Estatu Batuak, Mexiko, Filipinak, Frantzia... dira zesta-puntaren plaza garrantzitsuenak. Zesta-puntaren kudeaketa moderno batek zirkuitu internazional bat eskatzen du, eta telebista emankizunak ere internazionalak izatea. Euskal enpresek Jai Alai-a erabili behar dute euren produktuak nazioartean zabaltzeko. Euskal enpresen eta zesta-puntaren arteko elkarlana beharrezkoa eta onuragarria da bi parteentzat.

6.- Zesta-punta, mundu mailan, momentu kritikoan dago. Alde guztiek aurrerapausoak ematen badituzte, konponbidea posible dela sinesten dugu, eta etorkizun oparo baterako aukerak benetan handiak izango direla.

Bukatzeko, Jon Redondo, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariari dei bat egin nahi diogu, bere departamentuak Jai Alai-aren konponbidea sustatu dezan. Zesta-punta kudeatzen dute erakunde desberdinak urte asko daramatzate bakoitza bere aldetik, inolako akordioetara iritsi gabe. Eusko Jaurlaritzak elkarriketa hau sustatu behar du eta behin betiko zentzuzko konponbidea eragin.

José Ramón Oyarbide

IJAPAKo presidentea, Estatu Batuetako pilotari profesional guztien izenean.